

## **OHIZKO OSOKO BILKURA**

**2017.09.26**

Tolosako Udaletxean, 2017ko irailaren 26an, iluntzeko 8etan, lehen deialdia egin ondoren, Udaltzatza bildu da Ohizko Osoko bilkura egiteko. Mahaiburua, Olatz Peon Ormazabal, Korporazioko alkate-lehendakaria izan da eta ondorengo gaiak aztertzeko udalbazkide hauek agertu dira:

En la Casa Consistorial de Tolosa, a las 20:00 horas del día 26 de septiembre de 2017, se reúne el Ayuntamiento Pleno en sesión ordinaria y primera convocatoria, bajo la presidencia de la Alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal, y la asistencia que se expresa, a fin de tratar sobre los puntos del orden del día que se relacionan:

Alkate-lehendakaria:  
Olatz Peon Ormazabal

Bertaratutako zinegotziak:

Jokin Azkue Arrastoa  
Nerea Letamendia Belloso  
Patxi Amantegui Zubiria  
Nuria Carbonell Miranda  
Iñigo Alonso Sarasibar  
Joseba Koldo Ormazabal Lopez  
Maite Ruiz de Eguilaz Ezkiaga  
Begoña Tolosa Mendia

Lore Agirre Zipitria  
Onintza Lasa Arteaga  
Iñaki Irazabalbeitia Fernandez  
Igor Ezenarro Balda  
Maria Lasa Arruabarrena  
Pedro Manuel Etxabe Zabala  
Cristian Fernandez Susin

Ez bertaratutako zinegotzia:  
Ibai Iriarte San Vicente

Behin Behineko idazkaria:  
Karmele Contreras Goikoetxea

Kontuhartzailea:  
Ainhoa Molinos Zubiaurre

### **Eguneko gaia zerrenda**

1. Ondorengo akta onartzea:  
2017ko uztailaren 27ko Ohizko Osoko bilkurakoa.

### **Orden del día**

1. Aprobación de la siguiente acta:  
Sesión ordinaria del 27 de julio de 2017.

- |   |  |
|---|--|
| 2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:<br><br>2017ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (2017/1.198-2017/1.491).                | 2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:<br><br>Del 1 de julio al 31 de agosto de 2017 (2017/1.198-2017/1.491).             |
| 3. Izenpe, SA.-k (Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa) jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena.                         | 3. Convenio para regular los servicios electrónicos emitidos por Izenpe, S.A. (empresa de certificación y servicios.)                      |
| 4. 1600/2017 (2017/8 kreditu transferentziak) eta 1601/2017 (2017/9 kreditu gehigarriak) dekretuen jakinarazpena.                 | 4. Dar cuenta de los decretos 1600/2017 (transferencias de crédito 2017/8) y 1601/2017 (créditos adicionales 2017/9).                      |
| 5. 2017/10 kreditu aldaketarako espedienteak, kreditu gehigarrien bidez. Hasierako onarpena.                                      | 5. Expediente de modificación de créditos 2017/10 en la modalidad de créditos adicionales. Aprobación inicial                              |
| 6. 2017/08, 2017/09 eta 2017/10 kreditu aldaketarako espedienteak. Egonkortasunari buruzko txostenaren komunikazioa Udaltzarrari. | 6. Expedientes de modificación de créditos 2017/8, 2017/9 y 2017/2010. Comunicación al Pleno del informe sobre estabilidad presupuestaria. |
| 7. Kataluniako egoerari buruz EHBildu udal taldeak aurkeztutako mozioa.   | 7. Moción presentada por el grupo municipal EHBildu en relación a la situación de Cataluña.  |
| 8. Kataluniako egoerari buruz EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa.   | 8. Moción presenta por el grupo municipal EAJ-PNV en relación a la situación de Cataluña   |
| 9. Galderak eta eskaerak.   | 9. Ruegos y preguntas.   |

Segidan, lehendakariak batzarrari hasiera eman dio ondorengo gaiak aztertzeko:

A continuación, se da inicio a la sesión por la presidencia, para analizar los siguientes puntos:

**1. Ondorengo akta onartzea:**

**2017ko uztailaren 27ko Ohizko Osoko bilkurakoa.**

**1. Aprobación de la siguiente acta:**

**Sesión ordinaria del 27 de julio de 2017.**

Izenburuan aipatutako akta, aho batez, **onartu** da.

**2. Alkatetzako dekretu hauen berri ematea:**

**2017ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra (2017/1.198-2017/1.491).**

Alkatetzak 2017ko uztailaren 1etik abuztuaren 31ra bitartean (2017/1.198-2017/1.491) egin dituen dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Denak jakinaren gainean geratu dira.

**2. Dar cuenta de los decretos emitidos por la alcaldía:**

**Del 1 de julio al 31 de agosto de 2017 (2017/1.198-2017/1.491).**

**3. Izenpe, SA-k (Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa) jaulkitako zerbitzu elektronikoa arautzeko hitzarmena.**

**3. Convenio para regular los servicios electrónicos emitidos por Izenpe, S.A. (empresa de certificación y servicios.)**

Partehartzea:

... Joseba Koldo Ormazabal Lopez, Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea batzordeburua: *“Gaur egun tramite elektronikoen plataforma daukagu, geroz eta tramite gehiago egin daitezkeenak baina erabiltzen ditugun herramienta horiekin momentu honetan egia esateko arazoak daude ez delako identifikazio sistema errez bat. Herritarrek identifikatzeko behar dute Izenpeko txartel elektronikoa edo DNI elektronikoa eta nahiz eta beraien etxeetan txartela elektronikoa hauek irakurtzeko gailuak izan, ez da sistema hau erabiltzen. Hitzarmen honekin beste bide alternatibo edukitzea lortu nahi da, erabilera errazteko, B@k deitzen dioten sistema horrekin. Sistema hau, gehienok banketxeetan tramiteak egiteko erabiltzen ditugun txartel mota hori da, zenbakia eskatu eta klabea sartu ondoren identifikatzen dituguna. Horretarako email bat eta mugikor bat behar dira identifikazioa egiteko. Hitzarmen honekin Udate bulegotik ahalbideratuko dugu txartel horiek bidaltzea herritarrei eta ahalbideratzea tramiteak internetetik, txartel horrekin identifikatu ondoren etxean eskuratzea esate baterako errolda ziurtagiria eta inprimitea hemen Udate bulegoan ematen diren balio berberekin.”*

-----

Administrazio elektronikoaren garapenean, funtsezkoa osagaia da herritarren identifikazio sistema.

Orain arte ezagutzen ditugun identifikazio sistemak, (ziurtagiri elektronikoa, DNI elektronikoa, gako operatiboa, etab.) zailtasunen bat izan dute herritarren artean erabilera aldetik modu zabalean inplementatzeko: dela informatika ezaguera izan beharra, dela administrazio bakoitzaren aurrean identifikazio sistema desberdina izatea, etab.

Une Honetan, IZENPE, S.A. ziurtagiri jaulkitzaile den aldetik landuta dauka identifikazio sistema berria: barka jokua eta pasahitza bidezkoa. B@kQ izeneko sistema, besteak beste, Gipuzkoako Udaletan eta Foru administrazioan inplementatua.

Hurrengo urratsa identifikazio sistema hau herritarren artean zabaltzea izango da. Eta horretarako IZENPE, S.A.k aukera eskaini dio Tolosako udalari bere bulegoetan ziurtagiri jaulkitzen laguntzeko, hitzarmen bidez harremanak arautuz. "ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA IZENPE, SA-K JAULKITAKO ZERBITZU ELEKTRONIKOAK ARAUTZEKO HITZARMENA"

Jaulkipen horren suposatuko duen lan gaitasuna, herritarrentzat izango dituen abantailak eta Herritarrekiko Harremanak, Partaidetza eta Informazioaren Gizartea batzordeak 2017ko irailaren 20an jaulkitako diktamena, Udalbatzak, aho batez,

#### ERABAKI DU

**Lehenik:** Ziurtapen eta Zerbitzu enpresa IZENPE, SA.k jaulkitako zerbitzu elektronikoak arautzeko hitzarmena onartzea.

**Bigarren:** Erabakiaren honen berri ematea IZENPEri.

- |   |   |
|---|---|
| <p>4. <u>1600/2017 (2017/8 kreditu transferentziak) eta 1601/2017 (2017/9 kreditu gehigarriak) dekretuen jakinarazpena.</u></p> | <p>4. <u>Dar cuenta de los decretos 1600/2017 (transferencias de crédito 2017/8) y 1601/2017 (créditos adicionales 2017/9).</u></p> |
|---|---|

Partehartzeak:

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeburua: *Egiten ditugun bi kreditu aldaketa. Zortzigarrena kreditu aldaketa kreditu transferentzia da Ingurumen departamentutik egindako eskaerari erantzuteko 6.000,00 € laugarren kapitulutik bigarrena pasatzen dira. Udan auzo lanean Uzturreko bainuak egokitzeko hasi ziren lanei bukaera emateko. Bestalde, 9. kreditu aldaketa, kreditu gehigarria da. Kasu honetan erabiltzen diren 44.609,79 euroetatik, 9.039,79€ eraikinen mantentze lanerako dira, Beotibar pilotalekuko argiteri lan batzuk egiteko; 15.000,00 € Usabal poligonorako Ur bonba erosteko; Delta pabiloia eman zen sutearen ondoren beste bi pabiloia alokatu behar izan ziren Iñauterietako karrozak gordetzeko eta horretarako 10.890,00 € jarri dira. Eta azkenik, azterketa eta lan teknikoa burutzeko 9.680 €, Kasu hauetan kreditu aldaketa alkateak duen %5eko duen baimenaren eta eskumena horren barruan zegoenez horrela egin genuen. Hori dela eta, plenoari jakinarazten diogu.*

-----

Kontuhartzaileak 2017ko aurrekontuari dagozkion 8. eta 9. kreditu aldaketarako espedienteen kontu eman du.

Zortzigarren espedientea kreditu transferentzia modalitatean egin da, eta kreditua transferitzen eta jasotzen dut.en partidak hauek dira:

**Kreditua transferituko duten gastu partidak (bajak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Murrizketa	Amaierako kreditua
1 1100.481.01.172.00 2017	IRABAZI ASMORIK GABEKO ERAK.INGURUMENA	30.000,00	6.000,00	24.000,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>30.000,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>24.000,00</b>

**Kreditua jasoko duten gastu partidak (altak)**

Partida	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1 1100.226.08.172.00 2017	INGURUMEN JARDUERAK. INGURUMENA	44.700,00	6.000,00	50.700,00
	<b>GUZTIRA</b>	<b>44.700,00</b>	<b>6.000,00</b>	<b>50.700,00</b>

OHIZKO OSOKO BILKURA  
2017.09.26

Bederatzigarren espedientea kreditu gehigarrien modalitatekoa izan da, eta kredituen gehikuntza, guztira, 44.609,79 eurokoa da. Kreditu aldaketa honekin ez da gainditzen Alkateak duen eskumena 2017an kreditu gehigarriak onartzeko.

Partiden aldaketen xehetasuna hau da:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 1000.211.01.342.20 2017	ERAIKINEN MANTENTZE LANAK. BEOTIBAR PILOTALEKUA	10.000,00	9.039,79	19.039,79
1 0700.623.01.153.20 2017	MAKINERIA. BIDE PUBLIKOAK	53.245,62	15.000,00	68.245,62
1 0800.201.01.338.00 2017	ERAIKINEN ALOKAIRUAK. JAIK	18.150,00	10.890,00	29.040,00
1 0400.227.07.133.10 2017	AZTERK.ETA LAN TEKNIKOA. ZIRKULAZIOA ETA APARKALEKUAK	616.000,00	9.680,00	625.680,00
<b>GUZTIRA</b>		697.395,62	44.609,79	742.005,41

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 870.01 2017	ALTXORTEKIKO GERAKINA	44.609,79
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>44.609,79</b>

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

5. 2017/10 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien bidez. Hasierako onarpena.
5. Expediente de modificación de créditos 2017/10 en la modalidad de créditos adicionales. Aprobación inicial.

... Begoña Tolosa Mendia, Ogasun batzordeburua: "Hamargarren kreditu aldaketa hau kreditu gehigarria da eta gerakinak erabiliz. 20.425,00 euroko kreditua sortzen da Alde Zaharreko bi patio erosteko. Diruzaintzako gerakinak erabiliko ditugu eta, kasu honetan, plenoak eskumena duenez eskatzen diogu hasierako onarpena ematea.

-----

Jarraian, Udalbatzak, aho batez, bere egin du Ogasun Batzordeak 2017ko irailaren 20an jaulkitako diktamena, akordio bihurtuz:

**"2017/10 kreditu aldaketarako espedientea, kreditu gehigarrien bidez. Hasierako onarpena.**

*Udal honen aurtengo aurrekontuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kredituak aldatzeko izapidetzen ari den 10/2017 espedienteaz aztertu da.*

*Kreditu gehigarriak finantzatzeko dituzten sarrerak bat datoz espedienteari aplikagarria zaion araudian aurreikusitakoekin, eta oso-osorik finantzatzen dute gastu gehikuntza.*

*Halaber, kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ere aztertu da.*

*Azaldutako guztiarengatik, eta kreditu aldaketak finantzaketa nahikoa eta egokia duela kontuan hartuz, batzorde honek aho batez diktaminatu du aipatutako espedienteaz onatzea eta organo eskudunari proposatzea kreditu gehigarriak, 20.421,00 eurokoak, behin betiko onar ditzala.*

*Hala eta guztiz ere, aipatutako organoak bidezkotzat jotzen duena ebatziko du."*

6. 2017/08, 2017/09 eta 2017/10 kreditu aldaketarako espedienteak. Egonkortasunari buruzko txostenaren komunikazioa Udalbatzarrari.
6. Expedientes de modificación de créditos 2017/8, 2017/9 y 2017/2010. Comunicación al Pleno del informe sobre estabilidad presupuestaria.

Kontuhartzaileak 2017/08, 2017/09 eta 2017/10 kreditu aldaketarako espedientei buruz egindako txostenaren berri eman zaie plenoko kideei. Bere edukia hau da:

*“Administrazio izaera duten entitateen 2017ko behin-betiko aurrekontuak, Tolosako Udalaren 7/2017 kreditu aldaketaren ondoren, betetzen du finantza iraunkortasunaren helburua, baina ez du betetzen aurrekontu egonkortasunaren helburua.*

*Aurrekontu egonkortasunaren helburua betetzen ez duten entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin behar dute, jarduneko ekitaldian edota hurrengoan helburu horiek bete ahal izateko.*

*Hala ere, helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakina erabili izana denez, Gipuzkoako toki entitateen jarraitu beharreko erregelak 2017rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibideak onartzen duen Akordioaren 1. Erregelaren ezarritakoari jarraituz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordezkari komunikazio bat aurkeztu daiteke Udaltzatzen, zirkunstantzia hori adierazita, kontuhartzaileak finantza iraunkortasuna aztertu eta ebaluatzeko egiten duen txostenarekin batera.*

*Tolosako Udalaren kasuan, 2017ko zor publikoaren helburua betetzen dute administrazio izaera duten entitateek, eta defizit helburua ez betetzearen arrazoia diruzaintza gerakinaren erabilpena da.*

*Beraz, entitate hauek ez daude behartuta plan ekonomiko-finantzarioa onartzera.*

*Hau dela eta, kontu-hartzaile honek ondorengo txostena egin du, Udaltzatzen jakinaraziko zaiona, eta plan ekonomikoa ordezkatzeko duena.*

## **TXOSTENA**

### **Aurrekontuen egonkortasuna**

*Tolosako Udalaren 10/2017 Kreditu aldaketarako espedientearen ondoren administrazio izaera duten entitateen 2017ko behin-betiko aurrekontuak **2.793425,61** euroko defizita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.*

*Ondorio horretarako, ez denez aurreikusten ondorengo doiketarik beharko duen eragiketa adierazgarririk, kalkulu hori 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko sarreraren eta 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoko gastuen arteko diferentziarekin parekatu da, goian zerrendatutako entitateen kontuak bateratuta.*

*8/2017, 9/2017 eta 10/2017 kreditu aldaketak egin aurretik behin-betiko aurrekontuak 2.728.394,82 euroko defizita zuen. Beraz, kreditu aldaketarako espediente hauek 65.030,79 euroko defizita sortu du.*

*Ondorengo taulan azaltzen dira datuak:*



OHIZKO OSOKO BILKURA  
2017.09.26

Egonkortasuna	Hasierako Aurrekontua (SEC) 2017	Aldaketa 1/2017	Aldaketa 2/2017	Aldaketa 3/2017	Aldaketa 4/2017	Aldaketa 5/2017	Aldaketa 6/2017
Sarrerak Kap.1 - 7	29.611.055,00	29.838.359,17	29.910.978,60	29.910.978,60	29.979.482,42	29.979.482,42	29.979.482,42
Gastuak Kap. 1 - 7	28.482.655,00	30.962.540,33	31.981.142,85	32.527.610,16	32.596.113,98	32.696.377,24	32.696.377,24
Superabita / Defizita	<b>1.128.400,00</b>	<b>-1.124.181,16</b>	<b>-2.070.164,25</b>	<b>-2.616.631,56</b>	<b>-2.616.631,56</b>	<b>-2.716.894,82</b>	<b>-2.716.894,82</b>
Diruzaintza Gerakinaren erabilera		2.252.581,16	3.198.564,25	3.745.031,56	3.745.031,56	3.845.294,82	3.845.294,82
Finantzaketa ahalmena		<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>

Egonkortasuna	Aldaketa 7/2017	Aldaketa 8/2017	Aldaketa 9/2017	Aldaketa 10/2017
Sarrerak Kap.1 - 7	29.979.482,42	29.979.482,42	29.979.482,42	29.979.482,42
Gastuak Kap. 1 - 7	32.707.877,24	32.707.877,24	32.752.487,03	32.772.908,03
Superabita / Defizita	<b>-2.728.394,82</b>	<b>-2.728.394,82</b>	<b>-2.773.004,61</b>	<b>-2.793.425,61</b>
Diruzaintza Gerakinaren erabilera	3.856.794,82	3.856.794,82	3.901.404,61	3.921.825,61
Finantzaketa ahalmena	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>	<b>1.128.400,00</b>

*Defizit horren arrazoia diruzaintzako gerakinaren erabilera izan da. Kreditu aldaketen espedienteak finantzatzeko diruzaintzako gerakinetatik 3.921.825,61 euro erabili dira.*

*Honen eragina kenduta, behin-betiko aurrekontuak hasierako 1.128.400,00 euroko superabita du, SEC Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarraren arabera.*

*Beraz, plan ekonomiko-finantzarioaren ordeiz Udalbatzan komunikazio bat aurkezteko baldintzak betetzen dira.*

## **ONDORIOAK**

*Administrazio izaera duten entitateen 2017ko kontu bateratuen behin-betiko aurrekontuak, Udalaren 8/2017, 9/2017 eta 10/2017 kreditu aldaketen ondoren, aurrekontu egonkortasunaren helburua ez badu ere, entitate hauen egoera finantzarioa iraunkorra da eta aipatutako urraketa ondoriorik ez dela konprometitu geratzen.”*

Plenoa jakinaren gainean geratu da.

- |   |   |
|---|---|
| <b>7. <u>Kataluniako egoerari buruz EHBildu udal taldeak aurkeztutako mozioa.</u></b> | <b>7. <u>Moción presentada por el grupo municipal EHBildu en relación a la situación de Cataluña.</u></b> |
| <b>8. <u>Kataluniako egoerari buruz EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako mozioa.</u></b> | <b>8. <u>Moción presenta por el grupo municipal EAJ-PNV en relación a la situación de Cataluña</u></b>    |

7 eta 8 puntuko mozioak erretiratu egin dira eta ondorengo mozio honengatik ordezkatuak izan dira.

Mozioak honela dio:

### **“KATALUNIAREKIN BAT EGINEZ**

*“Urte luzeetako prozesu baten baitan etorkizuna libreki erabakitzeko bidea jorratu du Kataluniak. Horiek horrela, Kataluniako herri erakundeek, udal ugari eta Kataluniako Parlament-ak, herritarren nahiari bide emateko erabakia hartua dute.*

*Espainiako Estatuak mespretxua eta indarra erabili du herritarren nahia eragotzi eta zapuzteko.*

*Bide demokratiko honen aurkako eraso larriaren aurrean, Tolosako udalak honako mozio hau aurkezten du eztabaidatu eta onartzeko:*

- 1.- Udal honek adierazten du gatazka politikoak konpontzeko biderik eraginkorrena prozedura demokratikoen erabileran datzala. Hau da, elkarrizketa eta negoziazioaren eskutik akordioak lortzean eta hauek lortu ezean, herritarren gehiengoaren asmoa eta erabakia errespetatzea.*
- 2.- Udal honek, Kataluniak egindako ibilbidea errespetatu eta onartzen du. Izan ere, libreki adierazitako herritarren borondatea erabili nahi da herriaren etorkizuna eraikitzeko.*
- 3.- Udal honek, kezka adierazteaz gain, ez du onartzen “egitateen” bidez Kataluniako autonomian esku hartzea. Bestalde, udal honek ez ditu onartzen ere Estatuko segurtasun indarrek egindako operazio polizialak. Horien bidez, besteak beste, erregistroak gauzatu dira Generalitateko eraikinetan eta legezko arduradunak atxilotuak izan dira.*
- 4.- Udal honek eskatzen dio Espainiako Gobernuari bertan behera utz dezala oinarrizko eta*

- funtsezko askatasunen errepresio-estrategia, demokraziaren oinarrizko printzipioen kontra doalako.*
- 5.- *Udal honek salatu nahi du Kataluniako udaletako alkate ugari epaitegian deklaratzera behartzea edota, gertatu berri den eran, indar polizilak udaletxetara sartzea miaketak egieko. Demokrazia praktikan jartzea ahalbideratu dezakeen alkate bat ezin baita inputatua izan.*
  - 6.- *Udal honek, herritarren borondate askean oinarrituta garatzen diren prozesu politikoak babestu nahi ditu eta berretsi egiten du funtsezko printzipio demokratiko guztiekiko konpromisoa.*
  - 7.- *Udal honek elkartasuna adierazten die Kataluniako herriari, eta baita ere demokraziaren aurkako errepresio politikoa -Espainiako gobernua gidatutakoa- pairatzen diharduten pertsona eta erakunde guztiei.*
  - 8.- *Udal honek dei egiten du, Katalunian, Urriaren 1eko herriaren asmo demokratikoaren adierazpena ahalbideratua izan dadin, eta erabakia errespetatua. Horretarako, udal honek erabaki honen berri Katalunia Parlament-eko presidenteari, Espainiako Estatuko presidenteari eta Auzitegi Konstituzionaleko presidenteari ematea erabakitzen du. Tolosarrei mozio honen berri emango zaie.*
  - 9.- *Udal honek, Urriaren 1eko galdeketa bitarte udaletxeko balkoian estelada jartzea onartzen du, Kataluniako instituzio eta herritarrei babesa emateko asmoz."*

Eztabaida ondoren, mozioa bozketara jarri da eta, EAJ-PNV (9) eta EHBildu(6) zinegotzien aldeko botoekin eta PSE-EE(1) alderdiko aurkako botoarekin, gehiengoz, mozioa **onartu da**.

Partehartzeak:

- ... Cristian Fernandez Susin (PSE-EE): *"Mozio honen aurka bozkatuko dugu. Hau 2010tik datorren kontua da, Espainiako eta Kataluniako gobernuek ezgai izan dira elkarrizketa politiko bat sortzeko eta edukitzeko. Kataluniako gobernua erabaki du bide aldebakar eta ilegal bat hartzea, horrekin, Kataluniako parlamentuaren araudia, oposizioaren eskubideak, Kataluniako estatutua eta Espainiako Konstituzioa urratu ditu. Gogoratu nahi dut referéndum hau ilegaltzat hartu dutenen artean honako hauek daudela: Kataluniako parlamentuaren abokatuak, Kataluniako Consell de Garanties Estatutaries, Auzitegi Konstituzionala eta Europar Kontseiluaren Veneziako Komisioa.*

*Alderdi Sozialistatik elkarrizketa politikoa, negoziazioa eta paktuaren bidea defendatu dugu eta defenditzen jarraituko dugu, egoera honen soluzioa ez da auzitegietak eskutatik etorriko, elkarrizketa politikotik etorriko da, eta hori eskatzen diegu Espainiako eta Kataluniako gobernuei.*

*Azkenik, legaltasuna defendatzeagatik bortxak, irainak, mehatxuak jasatzen ari diren kargu publikoei, horren artean PSCko alkate eta zinegotziei, gure elkartasun osoa adierazi nahi diegu."*

- ... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *"EHBilduko kideok mozio honen alde bozkatuko dugu, noski. Guri eredugarri iruditzen zaigu Katalunian herritarren gehiengo baten eskariari ateak ireki urtetan zehar aurrera eramaten ari den ariketa demokratiko hau. Zuri ez iruditu arren, Christian, frogatuta gelditu da gaur egun alde bakarreko prozesua besterik ezin dela eman. Autodeterminazio eskubidean sinesten badugu eta autodeterminazio eskubide hori praktikan jartzen alde bageaude Madrilgo Gobernuak beste aukerarik ez du usten. Izan ere, ikusi*

*besterik ez dago, azken egun hauetan, batez ere, Madrilgo gobernuak hartu duen jarrera erasokorra. Jada ez gara hitz egiten ari bakarrik erabakitzeke eskubideaz, jada oinarrizko eskubide demokratikoak zalantzan jarri dituzte eta hori onartu ezina: komunikabideetan sartu dira, alderdi politikoen lokaletan sartu dira, alkateak deklaratzera deitu dituzte, goikargudunak atxilotu dituzte. Azkeneko egun hauetan Fiskaltzak aipatu du Kataluinako presidentea atxilotzeko agindua eman dezakeela ere, eta hori salagarria eta tamalgarria da. Hala ere, aipatu dudan guzti hau euskaldunoi ez zaigu batere arrotz, ezaguna zaigu tamalez. Madrilgo gobernuak gurekin ere izan duelako jarrera hori. Baina gurekin ezin izan du eta Kataluinarrak ere aurrera jarraituko dugulakoetan gaude. Zentzu honetan EHBilduko zinegotziok zilegitasuna osoa aitortzen diogu kataluinako parlamentuak egingo duen autodeterminazio erreferendumari eta beraz, urriak 1eko emaitza errespetatuko dugu eta errespetatzea eskatuko genuke. Aipatu duzun hartan gustatuko litzaidake erantzutea, aipatu duzu zeintzuk esaten duten prozesu guzti hau ilegala den eta galdetu nahiko nizuke Madrilgo gobernuak egiten ari den guzti hau legala ote den.”*

... *Alkatea: Mozioan bi gai aipatzen dira, bat erreferendumari dagokiona eta bestea da Estatu gobernu eta botere judizialak hartutako bidea alkateen inputazioarena eta are gehiago erreferendumarekin zer ikusi duen edozerena. Erreferendumari dagokionez, guk ere erabateko zilegitasuna aitortzen diogu erreferendumari. Kritika gogorak izan ditu erreferendun ilegala nola onartua izan den parlamentuan. Egia da ez zela erarik egokiena izan, hori ere Independentistak ere onartu dute baina bai izan dela utzi dieten era bakarrenean. Saiatu dira hamaika aldiz auziari beste bide bat bilatzen, Puigdemonek eten gabe luzatu dio Rajoyri hitzartuta erreferenduma, Eskozian egintzen zen bezala, galdeketa izan zenean neroni izan nintzen bertan eta ez zen izan ezer dramatikoa, eskoziarrak izan zuten bere iritzia emateko aukera, besterik ez. Eta horrek beti izan du ezezko borobila erantzun bakarra. Legebiltzarreko tramitazio ohikoa ere debekatu egin diete, baita Kongresuan barra-barra erabiltzen duten irakurketa bakarreko prozedura. Ate guztiak itxita legebiltzarreko gehiengo demokratikoa balio izan dute eta hori zilegia da. Gehienbat egindako bide guzti horren ondoren. Gertatzen da bi borondate edo legitimitateen talka. Batetik legeak agintzen duena eta hori alda ezintzat jotzen dute Estatu espainiarrean konstituzio horren defentsan eta, bestetik, herri borondatearena, zeinek bere iritzia erreferendumaren bidez adierazi nahi duen. Beste era batera esanda botere judizialak ilegaltzat jo dute erreferenduma baina Kataluniako herriak egingo duela erabaki du. Egoera oso kaskarrean izango da seguruenik eta seguruenik hori emaitzaren kontra ere joango da. Talkaren erdigunean beste eragile batzuen artean baita ere daude alkateak, Alkateen autoritatek herritik hartu eta emandakoa. Guk pentsatzen dugu ez dagoela ariketa demokratikoagorik alkate baten jardunean herriari hitza emateko bideak erraztea baino. Hitza herriarena da eta hori ezin du inolako legeak ukatu eta hitz horren adierazpena nahitaezko ariketa demokratikoa da. Gainera ariketaren emaitzak eta gaiaren garrantziak Kataluinak gaur egun duten aferaren tenorea badu edo dimentsio badu, gizartea ezin du albo batera geratu, ezin du ikusle soila izan, hainbat erabaki kasu honetan kataluinako herriak hartu nahi duena herriaren nahiari erantzun behar dio eta ez beste ezeri. Espainiako estatuak indarra handia du eta dituen baliabide guztiak erabiliko ditu galdeketa hau ukatzeko. Dagoeneko bizitzen ari dira Kataluinan tentsio uneak eta izango dira gehiago seguruenik etorkizunean, baina herri baten borondatea ez da legen bidez itzaltzen. Egoera honetan garrantzitsua da solidaritatea eskaintzea. Kataluinako herriari eta herrien iritzia errespetatzen ez dituen estatuari jakinaraztea gure desadostasuna. Historian zehar lehen ere bi herriak izan dira bidelagun, Herri bakoitzak hartzen dituen erabakien erabateko errespetuz. Eta orain ere bidelagun izan behar garela uste dugu. Bestalde, Europako legediak babesten herrien erabakitzeke eskubidea eta horretan oinarritzen da kataluinako*

*herria. Herrien Europa batean sinesten dugulako, eskubide zibilak eta askatasun publikoak errespetatuko dituen gainera guk ere mozioari baietza emango diegu."*

-----

Bozketa ondoren, alkateak adierazi du Katalanez hitz batzuk esango lituzkeela baina Nuria Carbonel Miranda zinegotzia kataluniarra izanik berari eman dio hitza:

... Nuria Carbonell Miranda(EAJ-PNV): *"Pertsonalki eskerrak eman nahi ditut mozio hau onartzeagatik, hemen eta que el poble de Catalunya sàpiga que té tot el nostre suport, la nostra solidaritat. Molts ànims a tothom. El proper 1 d'Octubre votarem."*

... Jarraian, Iñaki Irazabalbeitia Fernandez, EHBilduko zinegotziak, katalanez ere, babesa eskaini dio kataluinako herriari: *"Esan dudan bezala, Carme Forcadell Kataluinako Parlamentuko presidentea sari bat jasotzen ari da momentu honetan Bruselan, Centro Maurits Coppieters fundazioak emanda eta sari hau ematen zaio European autodeterminazio eskubidearen alde borroka egiten dutenei. Joan den urtean Alex Salmond-i eman zioten sari eta aurten, berriz, Carme Forcadell-i. Bi egoera zeharo ezberdin, batean errespetatzen diren eskubideak eta bestean pertsonari Carmen Forcadell-i justizia momentu honetan. Hori komentatu nahi nuen uste dudalako inportantea dela gaurko testuinguruan."*

## **9. Galderak eta eskaerak.**

## **9. Ruegos y preguntas.**

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu): *"Iurreamendi egoitzako langileek egin duten agerraldiaren inguruan galdera egin nahi nuke. Aspaldian ez da egin zuzendaritza batzorderik, apirilez gero. Kabia prozesua nola dagoen, atzeratzen ari ote den. Eta ñabardura bat, kezka sortzen dit aipatzen den lanpostu aldaketa batzuk emateko asmoa ote daukazuen. Oker ez baldin banago langileei jada notifikatu zaie aldaketa hori. Olatz, azkenego plenoan aipatzen zenuen, pertsonalari lotuta, ez zela erabakirik hartuko batzorderik ez bazen egiten, ez dakit zer gertatzen ari den. Zentzu horretan langileak proposatzen dute lan mahai bat osatzea. Irakurri dudanez, Kabia prozesu integratze horietan beraien baldintzak bermatzeko, bide horretan laguntzeko, asmoa baldin badaukazue mahai hori osatzeko gustatuko litzaidake mahai horretako kidea izatea ere."*

... Alkatea: *"Mahai gaineratu dira gai ezberdinak. Nik ere irakurri dut langilegoaren ordezkariak eman duen prentsaurrekoa. Argitzearren, gaiak nahastu xamarrek azaltzen dira. Batetik Gizarte Zerbitzutako legea dugu eta legearen eskumenen banaketa. Egoitzak Foru Aldundiaren eskumena den bezala udalak beste eskumen batzuk ditu, tartean etxez-etxe laguntza zerbitzuarena eta horren atzetik dago lege hori betetzeko eskualdean egiten ari garen lanketa hori. Aurreko legealdian sortzen da Kabia. Legealdi honen hasieran Batzar Nagusiak eskatzen dio Gipuzkoako Foru Aldundiari 16 Udal egoitzak Kabian sartzeko aurkeztu dezala bederatzi hilabeteko epean bateratzeko prozesua eta egutegia. Hori gauzatzeko sortzen da talde tekniko erreferente bat eta gero egiten dira bilerak Udalekin, Egoitzekin, jakiteko egoitza bakoitzaren egoera eta nola aurkeztu lan horiek. Lanak egindakoan, gainera, egoitza guztietan aurkezten dira, tartean baita ere lurreamendin langile guztiekin. Bertan aurkezten da plan estrategikoa, kudeaketa plana, antolaketa plana eta*

egutegi proposamen bat. Egutegi horren arabera, Tolosako egoitza sartuko litzateke Kabian 2018ko urtearen bukaeran. Langileek, hasiera hasieratik, aurkezten dituzte zalantza pare bat, normala denez, zilegia denez. Bat, gaur egun dituzten lan baldintzen bermea. Hori bermatuko dutela esan dute izan ditugun elkarrizketa guztietan. Aritu naiz dokumentazioa begiratzeko. Izan ere, galdera hori luzatuko zelakoan nengoen gaurko osoko bilkuran eta ikusi dut, Elena Basagoitia berak, erakunde publikoetako zuzendariak, Foru Aldundiak ateratako prentsaurreko batean, adierazten zuela "egungo lan baldintzak izango dituela" eta, badirudi legez izan behar duela hori eta ezin duela beste era batera izan. Hori da bilera guztietan transmititu zaiena ordezkari sindikalei. Bigarren kezka da Udalak Egoitzarekin hartutako konpromisoak 2012. urtean. Izan ere, 2012. urtean lurreamendi Egoitzako langileen lanpostuen balorazioa egin zen eta bertan jasotakoa ezin izan zen aplikatu garai horretan legeak ez zuelako ahalbideratzen. Horren ondorioz, hartu zen erabakia pleno honetan bertan legeak ahalbideratzen zuen momentuan aplikatuko zela. Gaur egun ere egoera berdinean gaude, legez ezinezkoa da aplikatu balorazio hori eta langileak eskatzen dute Kabia pasa aurretik balorazio hori aplikatzea. Baina legearen talka daukagu. Txostena eskatu zen Udaletxean eta txosten hori oso garbia da eta ez du inolako interpretazio ezberdinak egiteko aukerarik ere uzten. Hori transmititu zaie langileei. Adierazi ere, Kabiak Tolosako egoitzaren txostenean hori jasota daukala baita ere. Txosteneko atal batean agertzen da Udalak hartutako konpromisoa eta hori irakurriko dut testualki : ""Tolosaren kasuan 2012 urtean lurreamendi egoitzako langileen lanpostuen balorazio bat egin zen eta bertan hartutako erabakia aplikatzea faltako litzateke"". Egoera nola dagoen jasota badago txostenean. Azkenekoan elkartu nintzenean langile ordezkariekin beraiek hala eskatuta eta txostena mahai gainean genuenean, adierazi zidaten bazeukatela pentsatuta horrelako mobilizazioa egitea kontu hau ez bazen mugitzen. Zilegia da eta egin dute. Bai esan nahi dut aurreko legealditik legealdi honetara egoera berdina dela, ezer ez dela aldatu eta ez daukagula margen gehiegirik. Eta gero beste kontu bat zer ikusirik ez daukana Kabiarekin, ezta prozedura honekin, koordinatzailearen lanpostuarena. Badakizu erizain asistentziala eta koordinatzailea, bi lanak egiten zituela batera, legealdi hasiera honetan baita ere Zuzendaritzan ere izan genituen gabezi batzuk ordura arteko zuzendaria Foru Aldundira joan zelako; Administrazioan ere baja batzuk izan ziren eta pentsatu genuen egoitzak inolako eragin kaltegaririk izan ez zedin eta egoiliarak artatuak izan zitezkeen orduan komeni zela koordinatzaile hori lanpostua koordinatzailea bakarrik izatea. Erizaintza alde batera uztea, orduan ni langile horrekin egon nintzen eta berak adierazten zidan erizaina zela eta erizaintza egin nahi zuela lan. Erronkari heldu zion eta beti eskertu diot egin duen lan guzti hori. Zer gertatzen da gaur egunean egoera aldatu egin dela. Egoera zuzendaritza egonkortu da, baja horiek bukatu dira eta orduan bueltatzen garela aurreko egoera batera. Lehen hasiera batean koordinazioa Gizarte Zerbitzuko langileak ematen zuen, nik uste dut oso inportantea dela remarkatzea egoitza dela egoitza sozial bat eta ez asistentziala. Esan nahi dut Gizarte Zerbitzuetako zaintza oso inportantea dela eta kontzeptu horiek garbi eduki egin behar direla. Hori da lehen zegoen antolaketa, hori langile berarekin egon nintzen lehenengo jakiteko bere iritzia zein zen, kontrako ezer ez zidan adierazi eta prozedura normala jarraituz lehenengo lurreamendiko pertsonal batzordean komentatu da eta gero Juntara pasako da. Gertatu dena da oraindik ez dela Juntarik egin eta hori da pixkat eskaleta. Lan mahaiarena nik deituko diet , egongo naiz beraiekin baita ere. Normala iruditzen zait beraien ardura hori izatea aldaketa gogor xamarra delako. Lan mahaia osatu behar bada osatuko dugu, antolatuko dugu. Era guztietara, nik uste dut orain daudela Andoain eta Bergarako hitzarmena sinatzen. Orain arte, Kabiaren inguruan izan ditugun bilera guzti horietatik ez dago Tolosari dagokionez inolako informazio gehiagorik, ez dago inolako komunikaziorik, baino urte honetan segur aski, ez dakit zer garaietan hasiko garen harremanak izaten, beraz ez da txarra lan mahai osatzea, deituko diet eta osatuko dugu."

... Lore Agirre Zipitria (EHBildu) : *“Hori guztiarekin ados. Niri kezkatzen naute aipatu dituzun lanpostu aldaketa horiek. Eta batez ere, prozedura berak . Nik uste dut erratuta zaudetela informazioarekin. Izan ere, lanpostu baloraketa egin zenean ez zen bakarrik balorazio ekonomikoa egin. Planteatu zen lanpostuaren baloraketa egin zenean, antolaketari buelta bat ematea eta hor jada definitu zen lurreamendi egoitzak, alde batetik, beharko zuela koordinatzaile postu bat, erizain asistentzialarena eta bestetik gizarte langilearena, hiru postu horiek bitarteko zuzendaritza eta asistentziako langileen arteko hiru postu horiek finkatzen ziren. Momentu hartan, 2012ko legea zela eta, ezin zen inolako lanpostu eskaintzarik egin Orduan, erabaki zen erizain asistentzialak betetzea koordinazio postu hori eta bere funtzioetan, hala definituta zegoelako eta uztargarrienak erizain asistentzialarekin uztartze zirelako koordinazio postu horretako. Oso aldenduta gelditu zirelako Gizarte Langile baten funtzioak eta Koordinatzailearen funtzioak . Orduan, dagokion lanpostu baloraketak dagokion manuala zuen eta planteatzen zen urtero, urtero, halako balorazio mahaia biltzea holako aldaketei behar izango balira eztabaidatu eta erabakitzeke. Niri kezkatzen nau prozesu guztia ez dela eman, erabaki duzue bai, oso ondo, izenez egia da soziala dela egoitza, denok dakigu soziala izan arren, gaur egun bertan dauden egoiliarak bestelako beharrak askoz handiagoak dauzkatela eta horregatik eman nahi izan zaiola erizaintzatik eta alderdi sanitarioari garrantzia eta modu horretan dago definituta lanpostuetan. Beraz, horregatik begiratu ezazue ondo , aparte prozedura ez dut uste egokia izan denik eta ez dut uste gizarte langile batek momentu honetan funtzio horiek, zehaztuta daudenak betetzeko gaitasunik izan ditzakeen.”*

... Alkatea: *“Ez nator bat zurekin eta gainera, uste dut gai oso teknikoak direla eta hitz egingo ditugu lasaitasun osoz eta begiratuko dugu. Lanpostuen balorazioa egin zen horretan, balorazioak iraun zuen bitartean jada bukaeraraino mantentzen zen koordinazio lan horietan gizarte langileengan eta bukaeran egin zenuten aldaketa. Orduan ere, prozedura era hala moduzkoa izango zen. Bai, mendekotasuna azpimarratu nahiko nuke, mendekotasuna ez dela gaixotasun bat, da behar bat eta horregatik da soziala behar nagusia, ez da ospitale bat. Egoitza da mendekotasuna duten pertsonen etxebizitza bat eta horregatik kokatzen dut askoz hobeto gizarte zerbitzuen arloan koordinazio hori asistentzian baino .Gai teknikoak dira eta hitz egingo dugu.*

*Bukatzeko gaur jaso dugu gonbidapen bat Topic-en badago poesia emanaldi bat Lizardi Kultur Elkartek mende erdi bat ospatzen ari da, euskara eta euskal kulturaren bultzada horretan, bere izenak ohore egiten dio euskal poeta bati, Lizardiri eta horregatik ospatzen ari dira gainera poesia emanaldi batekin. Pena da gaur osoko bilkura izatea bestela han izango ginen, baina Zorionak Lizardi Kultur Elkarteari eta etorkizunean jarrai dezala orain arte bezala.”*

Besterik gabe, gaueko 20:35ean bilera bukatutzat eman da, eta guztia, nik, Idazkaria naizen aldetik, ziurtatzen dut.

Sin más asuntos que tratar, siendo las 20:35 horas de la noche, se da por finalizada la sesión, de todo lo cual, yo, el Secretario, certifico.

ALKATEA

IDAZKARIA